

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Behin betiko onestea hirigintza hitzarmena

Udalbatzak, 2025eko apirilaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa. Hasierako onespena ematea plangintzako hirigintza hitzarmenari. Hitzarmen honen bidez, hiri antolamendurako plan orokorren antolamendua aldatzeko oinarriak ezarri nahi dira, antolamendu baldintza orokorrak b11*11 lurzatiei aplikatzeko, zehazki, b11*11-4 lurzatitik b11*11-6 lurzatira, Iruña Okako Udalaren eta Subillabide industria sektoreko plan partzialeko 15 lurzatiaren titularren artean aplikatu beharreko hirigintza, ingurumen, sektore eta prozedura arauak zorrotz betez, espedientean dagoen dokumentuan jasota dauden hizpaketen arabera.

Bigarrena. Erabaki hau S. G. B, M. L. G. B., A. J. G. B, . C. G. B eta A. J.Y.T jaun-andreei jakinaraztea, Promociones VCI 21 SL enpresaren izenean eta ordezkaritzan.

Hirugarrena. Administrazio bideari amaiera ematen dion erabaki hau ALHAOn argitaratzea, eta jakinaraztea ezen, beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango dela Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazi ondorengo egunetik aurrera. Bestela, aukerako berraztertze errekurtsua jarri ahal izango da erabaki hau hartu duen organo beraren aurrean, hilabete bateko epean, jakinarazi ondorengo egunetik aurrera. Bestalde, organoaren berariazko edo ustezko ebazpenaren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da aipatutako epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurtsua ezesteko ebazpena jakinarazi ondorengo egunetik zenbatuta, edo sei hilabeteko epean, errekurtsuaren ustezko ezespina gertatu ondorengo egunetik zenbatuta.

Iruña Oka, 2025eko apirilaren 23a

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ